

BAZTANGO KIROL-KLUBEK UDALEKO KIROLDEGIA ETA BAZTAN FRONTOIA ERABILTZEKO ESKAERA. 2019-2020KO DENBORALDIA (2019-09-01/2020-06-30). TXAPELKETAK.

Eskatutako instalazioa: <input type="checkbox"/> Frontoia <input type="checkbox"/> Kiroldegia					
Kirol-kluba:			Helbide soziala:		
FIK:			Erregistro zk.:		
Kirol-klubeko burua:					
Harremanetarako pertsona:				tel.:	e-maila:
Kirol-mota	Maila	Eguna*	Ordutegia	Txap. mota**	Datak (hasi/akitu)
* Zehaztu: lr.-ig.					
** E: Estatukoa, Lurraldekoa, Nafarroako Kirol Jokoak, etab.					

ESKAERA:

1. Epea: 2019ko abuztuaren 5etik abuztuaren 13ra arte.
2. Aurkezteko tokia: Baztango Udaletxeko erregistroan (Foru plaza, zk.g. 31700 Elizondo) edo erregistro elektronikoen bidez
3. **ERABILTZEKO BALDINTZAK:**
 01. Eskatzen ahal den ordutegia: Larunbatetan 9:00etatik 22:00etara eta, salbuespenezko kasutan, beti eskari arrazoi zintzoak agertzen baldin badira, igandetan 9:00etatik 14:00etara
 02. Udalak kirol-instalazioak erabiltzeko baimena edo ezezkoa ematerakoan kasu bakoitzean aldeberean gertatzen diren inguruabarrak kontuan hartuko ditu.
 03. Baztango Udalak emandako baimena bertan behera utz edo/eta baimendutako ordutegia egoera berrira egokitu dezake, sortutako beharren arabera.
 04. Instalazioa erabiltzeko araudia bete behar da.
 05. Baztango Udalak baimendutako programazioa behin baino gehiagotan ez betetzeak edo/eta kirol-instalazioen barne araudia ez betetzeak edo/eta Udalak agindutakoa ez betetzeak Udalak emandako baimena bertan behera uztea ekar lezake
 06. Beharrezko kirol-materiala kirol-klubak berak eraman beharko du.
 07. Instalazioan kirol-oinetako (zola idor eta garbikoak) eta kirol-arropa egokiekin sartu behar da.
 08. Kirol-instalazioan ezin da publizitate kartel iraunkorrik paratu.
 09. Instalazioan, bakar-bakarrik, baimendutako jarduerari dagozkien materialak sartu daitezke eta inoiz ibilgailurik, karrozik, orgik, eskorgik edo bertzelako edozerik zola hondatzen ahal duena
 10. Eskatzaileak instalazioko zola ez hondatzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu
 11. Eskatzaileak instalazioaren ardura izanen du baimendutako egunetan eta ordutan. Hau da, kirol-klubak antolatutako kirol-jardueren, edozein motatakoa diren horiek, erantzukizun osoa kirol-klubarena izanen da. Hori horrela, instalazioan, bakar-bakarrik sartzan ahal dira eskatzaileak baimendutako pertsonak eta eskatzailearen ardura izanen da horien eta horren kontrola
 12. Eskatzailearen ardura izanen da instalazioa garbi eta egoera onean uztea.
 13. Eskaearekin batera txapelketako egutegia aurkeztu behar da.
 14. Eskaitzaileak, edozein aldaketa balitz aurrikusitako erabilera egutegian, jakinarazi behar dio, lehenbailehen, aldaketa hori bai instalazioko arduradunari (kiroldegia tel. 607251955; frontoia tel. 948452145) bai kirol teknikariari.
 15. Eskatzaileak Baztango Euskararen Ordenantza bete behar du.

“41. artikulua. Baztango Udalak, udalerrian egiteko, diruz laguntzen dituen kultura, kirol edo bertzelako jarduera eta aktibitateetan, bai eta haien idazki, iragarki nola karteletan ere, euskarari lehentasuna eman beharko diote antolatzaileek.

42. artikulua. Baztango Udalak euskara erabiltzeko gonbita egingen die udal instalazioak eta materiala erabiltzeko eta besta egunetan barrakak paratzeko baimena eskatzen dutenei. Horrekin batera, Udalak jakinaraziko die, behar izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuaren hizkuntza aholkularitzaz baliatzen ahal direla.”

16. Eskatzaileak instalazioaren irekiera eta itxiera koordinatzeko jakinarazi behar dio instalazioko arduradunari instalazioa erabili beharreko egunak eta orduak.
17. Adingabeak ezin dira bakarrik egon instalazioan.
18. Eskatzaileak onartzen ditu eskaera-orri honetan zehaztatutako baldintzak.